

Arrasate

P R E S S

1998ko
Maiatzak 1
310. zenb.

KULTURA

Aitor Lodoso

IRITZIA

**Jose Luis
Agirretxe**

KIROLAK

**Nesken Futbito
Txapelketa**

ESKOLA MAPA

**Aro berria
hezkuntzan**



Zergatik, panporo?

Arantxa Urretabizkaiarena

Azerre Teatroa



Amaia Antzokian

Martxoaren 9an (larunbata) • Gaueko 10.30etan
Sarrera: 800 pta. (Gazte-Txartelarekin: 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kantua lokarri

Belgikan lagunartean bildu eta larunbat askotan egiten genuen geure festa Euskal Herriko ikasle-ok. Afaria prestatu, afaldu, kantaldia egin eta garbiketa burutu, kanpora joan aurretik. Hura zen lagunarte giroa, hemengo abesti eta jotak kantatzean.

Izan ere, kanta bildu egiten du jendea, ez da bakarka bizitzen kantua, liburu bat irakurtzen bezala. Taldeko harremana sortzen da abestean. Eta norberaren gogoia bereganatzen du.

Bestelakoa da hemen egindako afari askotako sentimendua. Urtebetetze, despeira edo beste aitzakiren bat dela, askotan egin ditugu lantegiko lagunarteko afariak. Baina ez dira hemengoak afari horietan kantatu ohi diren abestiak. Duela 20-25 urte modan zeuden dantzarako musika eta abestiak dira hauek, Espainian modan zeudenak eta baita hemen ere. Kulturalki, bere morrontzapean geneuzkan Diktadurak.

Hala ere 1965 aldera esperantza berri bat sortu zen euskal kantagintzan. Euskal Herriko iparralde zenik ere ez genekielako, Mixel Labegeriren abesti zirraragarriak entzun genituen, ezkutuka. Eta gerrate osteko sufrimendua eta esperantza kantatuz hunkitu gintuen: "Haurtxoa, haurtxoa", "Zer duk nigarrez", "Gu gera Euskadiko"...

Laister azaltzen dira Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Xabier Lete. Eta euskal kantagintzaren katalizatzaile eta berritzaile izan zen Ez Dok Amairu osatzen dute, Josean Artze, Joxe Angel Irigarai eta beste batzuekin batera. Euskal nortasun kulturala berreskuratu eta tradizio horretan oinarrituz kanta berriak osatzea zuten helburu.

Ez Dok Amairuko partaidea izan zen ere Jose Antonio Villar, gure herritarra, garaiko modako kanta euskaratu eta

abesten hasten dena. Euskal letrak eman ezkerok, norbera ohartu gabe, musika entzuteaz bat, euskaraz kantatzen jendea jartzea espero zuten, berak eta beste abeslari batzuk.

Iparralde ere laister sartzen da bire horretan. Manex Pagola, Pantxo eta Peio, Niko Etxart... dira azaltzen zaizkigunak. Kantu sinpleak, tabernara pasatze-ko modukoak, jendeak erraz kanta ditzakenak egiten dituzte. Eta Iparralde eta Hegoaldeko kantariak batera parte hartzen dute hainbat jaialditan.

Hasi jaiotzatik eta heriotzeraino, kantua dugu bizitzako gune guztietan lagun: seaska kanta, haurretako jolas kantuak, eskolakoak, lagunartekoak, dantzarakoak, jaialdietakoak... Egia da baita ere pasibotasuna ikusten dela TB, irrati edo diskoaren aurrean. Bertan jarri eta keinu eta imintzioka, erritmoa markatuz, tximinoen antzera jokatuz.

Gaur egun, ingelesa da modan, eta ingelesez abesten dute abeslari ezagunak. Aurreko egoerarekin alderatuz, badu abantailarik, ez garelako gaztelaren eraginpe batean soilik sartzen, edo eta frantsesarenean iparraldean. Geurea da orde lehenengoa. Eta Koldo Mitxelenak zioen moduan, guk geure burua aintzako-tzat hartzen ez badugu, nork hartuko gaitu bada kontutan?

Lehenengo eta oraingo kantuak, serio eta bromazko kantuak, kanpoko eta hemengo abestiak euskaraz nahi ditugu. Badaude euskaraz ematen diren musika eta kantu jaialdi batzuk, artista bakan batzuk emanak. Baina jendea ez dugu ikusten euskaraz kantatzen eta dibertitzen. Hori bultzatu nahi izan du AEDk Arrasate Kantari Jaialdia antolatuz. Bertan dugu topalekua.

RUFINA OLASAGASTI



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Mainer Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Eru-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo Kortabarria

Kaixo arrasatearrok!

Arrasatearra izanik, zuegan zuzentzen naiz VII. Play Back Jaialdiari buruzko zerbait esan asmoz.

Lehenik eta behin hainbat eta hainbat partehartzaileraren ahalegina goraiatu nahiko nuke, denok estimatzen dugun herri honengatik hainbeste ordu, neke eta lan hutsaren truk eskaintzen baitute.

Bigarrenik esango nuke jaialdi honetan kalitate maila ezberdineko aktuazioak izan direla: batzuk izugarri onak, hainbat onak eta beste batzuk ez hain interesgarriak, baina gure artistek egindako ahalegina eta lana ikusirik denek merezi izan dute txalo zaparradarik beroena.

Ikusi dudana gatik, ATBk eskaintako saioak "oso moztuak" izan dira, hainbeste lan egin ondoren batzuk agertu ere ez baitira agertu. Kontuan izanik ATBk aurrez esan zuela jaialdi hau bere osotasunean eskainiko zuela, zergatik ez ditu erakutsi aurkezpena? non dago Charlie Brown despistea? edota Romeo eta Julietaren parodia? Jaialdia berez izan zena eta ATBk erakutsi diguna oso bestelakoak izan dira.

Bestalde eskertu nahi dut SUDC komisioak egiten duen lana herri honetako zenbait festa eta ospakizunetan, hala nola: San Juanak, Atzeratuen astea, Jubilatuen omenaldia, Doke txapelketa, Nazioarteko Akordeoi lehiaketa etab. etab. Gu geure etxean lasai gauden bitartean, hor dabilta eurak lan eta lan etenik gabe. Horrengatik animo eta aurrera, ni bezala lagun asko baitago lan hori eskertzen duena.

Honelako mementu onak pasarazi dizkizuegulako, aurtengo jaialdian parte hartu duzuen guztioi mila esker eta animo! eta segi datorren urterako jaialdian pentsatzen.

Eskerrik asko bihotzez.

ARRASATEAR BAT

Gatazka EP-an

"Izugarria da, Espainiako demokrazia noraino heltzeko gai den...".

Honela hasten zen gure grebarako deialdia, baina beste arrazoi bat sartu beharrean aurkitu gara, azkenean horrela gelditu delarik: Izugarria da, Espainiako eta eskola honetako "demokrazia" noraino heltzeko gai den.

Hasiera batean Euskal Herrian bizi dugun gatazka politiko-militarrari irtenbidea emateko, gatazka horretako alde batek, irtenbide edo pake prozesu bat aurkeztu zuen. Esan beharra dago egoera honi irteera emateko dagoen proposamen bakarra dela. Beste aldeko erantzuna zein izan da? Ba alternatiba hori aztertu, landu eta aurrera eman beharrean (edo gutxienez eztabaidatu) alternatiba honi oztupoak jarri, ezkutatu, sekuestratu eta azkenean bide hori jarraitzen dutenei 6 eta 12 urteko gartzela zigorraz gartzelera eramanez (Jon Idigoras adibide gisa).

Honen aurreran zuzendaritzaren erantzuna ez, ez eta ez izan da. Lehenik aste honetan ordu asko galdu dugula jartzten zuen arrazoi moduan (ihaute-riak, elurra...). Gero honek ez zuela balio ikusita, bere bigarren aitzaki fantastikoa, Arrasateko alkateak ez duela grebarik egin behar esaten zuen, (hartazu hori!) eta azkenik greba bat aurrera eramateko kanpoko laguntza sozial baten beharra dagoela esan du, hots: hemen greba egiteko lantegiak ere egin behar dutela (falta zena!). Arrazoi bakar eta egiazkoak politikoak izanik.

Hitz hauek entzun dira zuzendariaren ahotik: "Ados ez bazaudete baja hartu, dirua bueltatzen dizuegu eta aldegin. Mehatxatuta sentitzen bazarete, mehatxatuta zaudete".

Honen aurrean delegatuak galdetu gara: Zer egin dezakegu?

Klasez klase komunikatu

hau irakurtzeko ere pegak jarri dizkigute, irakasle eta zuzendaritzaren arteko kontraesanak egonik.

Ikasleen erantzuna azkenik komunikatu hau bidaltzea izan da, gauza hauek aldatuko diren itxaropenez.

**ESKOLA POLITEKNIKAKO
INSTITUTOKO IKASLEAK**

Abertzale bat Eari erantzunez

Arrasaten, Euskal Herri osoan bezala, bi poloren arteko borroka gertatzen ari da: Espainiaren estrategia edo proiektua alde batetik, eta Euskal Herriaren nazioa eta independentzia defenditzen dugunona bestetik.

Borroka latz honetan, hainbat jende hil da, beste batzuk zauritu, eta beste asko gartzelan eta exilioan daude oso egoera txarrean.

EAJ eta EA, Ajuria Eneako partaideak, dispersioaren eta errepresioaren erantzuleak dira, Espainiaren proiektua aurrera ateratzeko hartu behar diren neurriak Ajuria Enean erabakitzen direlako eta oneritzia bertan ematen zaielako.

Testinguru honetan, guk manifestaldietan parte hartzen dugunok, "Euskal presoak Euskal Herrira" eta "Amnistia" aldarrikatzen dugu. Aldi berean, PSOE, EAJ eta EAren zuzendaritzek egoera honetan daukaten erresponsabilitateak azpimarratzen ditugu. Honek herrian tentsio egoerak sortzen ditu, baina egun batean jar zaitezte preso eta senideen lekuan eta alderatu tentsio egoera hori.

ETAk eta HBk alternatiba demokratiko bat aurkeztu dute borroka hau bideratzeko eta konpontzeko. Estatuaren erantzuna Jon Idigoras espetxeratzea eta bideoa debekatzea izan da. Ah zer

nolako demokrazian bizi garen! Ai zuen demokrazia. Guk estatuaren errepresioa pairatzen dugu, zuek aldiz, noizean behin erasoren bat. Badago aldea!

Ea argitzen zaizuen burua eta Euskadiren alde, independentziaren alde hasten zaretan borrokan, ondorio guztiakin. Bide horretan elkartuko gara.

MANIFESTATZAILE BAT

ATB eta Play-backa

Jaialdia osorik ez genuela eskaini eta, zerbait esan nahi dugu. Gure asmoa jaialdia osotasunean ematea zen, baina hainbat saio gaztelaraz zeuden eta guk euskaraz lan egiten dugunez, horiek ez emititzea erabaki genuen. Gai nontzeko guztia irten zen ATBko laburpenean.

Bestalde, Play Back jaialdian edo herrian antolatzen den beste edozein ekintzetan ezere truke parte hartzen dutenen lana goraiatu nahi genuke, hori da eta herriari bizitasuna ematen diona. Ez etsi, beraz, eta hurrengoan euskaraz.


ARKO

"Hauteskundeak 96" orri berezia astelehenean

Azken urteotako hauteskundeetan bezala, ARRASATE PRESSEK jarraipen berezia egingo die domekan burutuko diren hauteskundeak.

Astelehenean, goizean goiz, kioskoetan izango duzue bezperako gorabehera guztiak jasoko dituen orrialde berezia: argazkiak, emaitza guztiak, alderdien iritziak, gertakizun arraroak... hori guztia irakurtzeko aukera izango duzue astelehenean.

Igandean baduzu botoa ematen joateko asmorik?



Nestor Ibabe
Langilea
(32 urte)

Bai, joango naiz. Hauteskunde guztietan ematen dut botoa. Ez daukat konfidantza handirik baina gure eskubidea da.



Faustino Elejalde
Jubilatua
(75 urte)

Bai, obligazioa dela esaten dute eta joan beharko! Dena ezin daiteke sinestu baina dena gezurra denik ere ezin dugu esan, beraz, badaezpada bozkatzera joango naiz.




Ohiana Otxoa
Langabetua
(21 urte)

Bai, hautesmahaira hurbilduko naiz, beti ematen dut botoa eta. Zeozertarako balio izango duela uste dut nik!



Antonio Elorza
Jubilatua
(62 urte)

Bai, beti joaten naiz botoa ematera. Euskal Herriaren presentzia Madrilén ahalik eta handiena izan dadin botoa eman behar dela uste dut.



Luis Usatorre
Sendagilea
(32 urte)

Bai, normalean beti ematen dut botoa. Balio gutxi duela uste dut baina ezin dezakegu beste ezer egin eta botoarekin zer edo zer egiten dugula uste dut.



Izaskun Olaizola
Langilea
(30 urte)

Bai, joango naiz, beti bezala. Botoa ematea eskubide bat da eta gainera bozkatzera joan behar dugula uste dut. Bozkatzen ez baduzu gero ezin zara kexatu.



Maria Encarnacion Vara
Etxekoandrea
(38 urte)

Bai, joango naiz, beti joaten naiz. Ez dakit zeozertarako balio izango duen baina badaezpada botoa emango dut.



Iris Rosano
Langilea
(36 urte)

Bai, beti joaten naiz. Hiritarrok daukagun eskubide bat da eta praktikan jarri behar dugu. Ez dakit zeozer lortzen dugun horrekin baina inor ez balitz bozkatzera joango oke-rago izango litzateke.

TAKOLO AUTOAK

OPEL 

**Zure OPEL banatzailea
ARRASATEN, zergatik
joan urrinago?**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
-----------------	----------

Monterrongo liburutegia

Monterron	77 01 05
-----------------	----------

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 1

10ak arte: Morales. San Andres. Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara.

Larunbata 2

10ak arte: Azkoaga. Ferrerías. Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara.

Igandea 3

10ak arte: Español. Iturriotz. Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara.

Astelehena 4

Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Astearte 5

10ak arte: Irizar. Erguin. Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara.

Asteazkena 6

10ak arte: Amezua. Santamaina. Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara.

Osteguna 7

Egunez eta gauzez: Puy. Bergara. 10ak arte: Ruiz. Maala.

1 OSTIRALA

• **ZINEA**

"El demonio vestido de azul" 7etan eta 10etan.

• **ASANBLADA**

Arratsaldeko 7etan asanblada Seberon eta ondoren Plenoa Udaletxean. Amnistia-ren aldeko Batzordeak antolatuta.

• **TXOMIN ITURBERI OMENALDIA**

Txomin Iturberi omenaldia gaueko 10.30etan Amaia Antzokian. Ekitaldi politikoa: Hizlaria: Floren Aoz. Aurkezlea: Xabier Zubizarreta. Txalapartariak, Arrasateko trikitilariak eta bertsolariak: Haritz Lopategi, Ion Maia, Iratxe Ibarra, Unai Iturriaga eta Jesus Mari Irazu. Abeslaria Iñaki Labaka. Ondoren Peixotoren bideoak. Herri Batasunak antolatuta.

HIKA IKASTAROA

Martxoaren 9a eta 10ean Hika ikastaroa AEDk antolatuta, AEK eta Udal Euskaltegiaren laguntzaz. Irakasleak Miren Arregi, Jabi Ozaeta eta Xabier Zubizarreta. Arabako Ozaeta herrian. Informazio gehiagorako deitu 77 12 28 zenbakira.

MASAIA IKASTAROA

Masaia ikastaroa hasiko da martxoaren 8an. Ostiralero emango da goizeko 9.30etatik 11.30etara. 26 orduko iraupena. Plaza mugatuak. Irakaslea Antonia Nogueiras. Famili eta Gizarte heziketarako zentruak antolatuta. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira.

2 LARUNBATA

• **ZINEA**

"La llave mágica" 5etan. "Jade" 7.30etan eta 10etan.

• **LUDOTEKA IBILTARIA**

Txatxilipurdiko ludoteka ibiltaria Musakolako alkatetzan goizeko 11etatik ordubata arte. OHOk 1 mailatik 8. maila arteko ikasleei zuzenduta.

• **ANDALUZIA EGUNA**

Eguerdiko 12etan umeentzat jolasak. 2.30etan herri bazkaria. 5etatik 8.30ak arte Andaluziako dantza, talde rozieroa eta antzerkien emenaldia. Gaueko 11etan herri dantza. Ekintza guztiak Al-Andalus elkartearen lokalean burutuko dira.

• **ERREFUXIATU EGUNA**

Arratsaldeko 7.30etan manifestazioa Seberon. Amnistia-ren aldeko Batzordeak antolatuta.

• **ARRASATE MUSIKAL ORKESTRA**

Arrasate Musikaleko Orkestrak, Coro Mondrag'ón eta Gokobalu abesbatzarekin batera kontzertua arratsaldeko 8etan Amaia antzokian.

• **DORLETAKO AMA ESKOLAREN AURKEZPENA**

Dorletako Ama birrindulari eskolaren aurkezpena Gatzagan. Goizeko 10.30etan Dorletako santutegian lore eskaintza. 11.30etan aurkezpen ekitaldia Venta Fria jatetxean.

3 IGANDEA

• **ZINEA**

"La llave mágica" 5etan. "Jade" 7.30etan eta 10etan.

• **HAUTESKUNDE EGUNA**

Goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara hautes-mahaiak zabalik.

KINTOEN BAZKARIA

1.934an jaiotako kintoez bazkaria izango dute martxoaren 30ean. Bertara joan nahi duzenok izena eman Bengoa Tabernan martxoaren 28a baino lehen. Izenematea 2.000 pta.

TAICHI IKASTAROA

Eskoriatzako Magisteritza eskolako areto gelan Taichi ikastaroa emango da hilabete bakoitzeko bigarren zapatuan. Hiru ordu jarraian arratsaldeko 4etatik 7ak arte. Emalea Valentin Zurbano. Informazio gehiagorako deitu 71 41 91 zenbakira.

IGERILEKUA ITXITA

Martxoaren 3a arte Musakolako igerilekua itxita egongo da Eusko Jaurlaritzaren araudia betez, garbiketa lanak egiten ari direlako.

4 ASTELEHENA

• ZINEA

"Jade" 7etan eta 9.30etan.

HARATUZTEAK 1.996 ERAKUSKETA

Martxoaren 6a arte Haratuzteak 96 argazki erakusketa Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.



EMAKUMEAREN EGUNA

Martxoaren 8an emakumearen eguna ospatuko da. Egun horretarako hainbat ekintza antolatu da. Bidai kulturala La Hoya eta Biastegi, ondoren bazkaria. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak antolatuta. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira. Manifestazioa arratsaldeko 7.30etan Sebero Altube plazan. Gauean 9.30etan herri afora Egizane antolatuta gaueko 9.30etan. Izenematea Biona eta Irati tabernetan martxoaren 6a baino lehen. Gaueko 10.30etan jaialdia Betiprest taldearekin Herriko plazan. Emakume sailak antolatuta.

5 ASTEARTEA

• ZINEA

"Jade" 7etan eta 9.30etan. Ikusleen eguna.

• ABAROAKO BATZAR OROKORRA

Abaroa jubilatuta eta pentsionisten elkarteak batzar orokorra egingo du arratsaldeko 5etan Abaroan.

• AEDko BATZAR OROKORRA

Arratsaldeko 7etan AEDko lokalean. Hainbat puntu erakusketaren bidez azalduko dira. Batzar Nagusiaren ondoren luntxa egongo da.

6 ASTEAZKENA

• PEKINGO KONFERENTZIA-RI BURUZKO HITZALDIA

Gaia: "Pekingo konferentzia". Emalea: Plazandreak elkarrearen ordezkari bat. Arratsaldeko 4etan Famili eta Gizarte Hezketarako zentruan.

• HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: "1.990. harmakadako gazteak: kezka eta jakinahiak emakumearen mende". Hizlariak: M Angeles Marquero, Valentziako Dones Joves taldeko kidea. Monterronen arratsaldeko 7etan. Emakume Asanbladak antolatuta.

• LANDAREI BURUZKO HITZALDIA ARETXABALETAN

Loramendi elkarteko Tril emakume taldeak antolatuta barruko landare buruzko hitzaldia arratsaldeko 3.30etan Lokalean. Hizlaria: Jakoba Rekondo.

ZUBEROAKO MASKARADA

Muskildiko maskarada Eskiulan martxoaren 10ean. AEDk autobusa antolatu du. Informazio gehiagorako 77 12 28 zenbakira deitu. Izena emateko azken eguna martxoaren 6a.

EMAKUMEA 1.996 ERAKUSKETA

Martxoaren 8tik 17ra Emakumea 1.996 argazki erakusketa Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

7 OSTEGUNA

• ZINEA

"Carrinton" 7etan eta 9.30etan.

• EMAKUME ZINEGILEAK

"Entre Rojas" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

• HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIA

Hitzaldiak bi atal izango ditu. A atalean Unibertsitateko ikuspegi gaia jorratuko da. Hizlariak: Isaac Barrio. E.H.Uko irakaslea. B atalean hezkuntza tekniko-profesionalen ikuspegi. Hizlaria Mikel Balerdi, La Salle ikastetxe-ko Zuzendaria. Arratsaldeko 6etan Gazteluondoko ikastolan. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta.

• EMAKUMEEI BURUZKO HITZALDIA

Gaia: "Emakumeen lana historian zehar". Hizlaria: Nekane Jurado. Monterronen arratsaldeko 7etan. Egizane antolatuta.

ARKITEKTURA ARRASATEN ERAKUSKETA

Martxoaren 15era arte "Arkitektura Arrasaten" erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

“Unibertsitateko ikasketak bukatu ondoren, oraindik ikasten jarraitzeko aukerak badaude: doktoretza ikasketak edo masterrak. Masterrak urtebete edo bi irauten du. Nik telebista eta iratiaren inguruan egin nuen masterra. Asko ikasi behar den arren, merezi du hemendik irten eta urtebete edo bi kanpoan bizitzea.

(...) Bostondik bueltan, Madrilan lana eskaini zidaten, eta diru asko izan arren, ezetz esan nuen ze Euskal Herrian euskaraz lan egitea nahiago izan nuen”.

Asier Aranguren, 1996-2-28.

Egunkaria

“Argentinan sartuta, Fagorrek aurrerapausu berri bat eman du bere internazionalizazio estrategian. Estrategia hori orain bi urte hasi zen, Espainiatik kanpoko lehen hozkailu lantegia Marokon ezartzea erabaki zuenean, iazko udara aurretik abian jarri zena hain zuzen ere. Ekimen horretarako, kooperatiba euskaldunak, Oukrid familiarekin bat egin zuen, Extra Electromanager enpresa eraikiz. Enpresa hau arazoak sortzen ari da, bazkide bien arteko konponketa ezagatik. Lehen ezarpen hari jarraitu zion, orain hilabete batzuk, Fresh talde egipziarrarekin lortutako akordioak, herrialde arabiar hartan garbigailuak ekoizteko. Era horretan Mondragon taldeak bere hatzapparak itxi zituen barrutik Magrebeko merkatuaz jabetzeko. Hegoamerika Fagorren begiradapean dagoen beste helburu-merkatuetariko bat da, uda aurretik Arrasateko kooperatibek egin zuten plangintzaren arabera. Plangintza horretan dienez, MCCko enpresek, atzerrian ezartzeko 2000. urtera arte 45.000 milioi pezetako inbertsioak egingo dituzte”.

Expansión, 1996-2-26

Expansión


Noizko izango du lokal berria Al-Andalusek?

Lasterizatea espero dugu, proiektua Udalean aurkeztuta eta Arkitekturen Eskola Ofizialean onartuta dago eta. Orain lehiaketa publikora ateratzea falta da, eta ondoren obrei hasiera emango diegu. Konponketa lanek hiru hilabete inguru iraungo dutela uste dugu.

Oraingo lokala txiki geratu zaigunez, eta hainbat ekintza beste toki batzuetan egin behar izaten dugunez erabaki genuen berria erostea. Egoitza berria Musakolan dago eta 800 m² ditu, beraz aurrekoa baino dexente handiagoa izango da. Lokalak bi solairu ditu; lehenengoan sukaldaria, taberna eta ekintzetarako gela egingo dira, eta bigarrenean batzarrak egiteko gelak eta bulegoa. Lokal berriarekin ekintza gehiago antolatzeko moduan izango garela uste dugu.

Orain arte ez dugu dirulaguntzarik eskatu erosketari eta obrei aurre egin ahal izateko, baina Arrasateko Udalarari eta Diputazioari eskatzeko asmoa dago. Andaluziako Juntari ere eskatu diogu baina dirulaguntzak ekintzak antolatzeko bakarrik ematen dituztela adierazi digute. Hori bai, banketxeren batean kreditua ere eskatuko dugu.

Al-Andalus elkarteak orain dela sei urte eratu zen, eta hasieran 50 bazkide baino ez genituen. Gaur egun 426 bazkide ditugu. Behar bada lokal berria erosi dugulako izango zen, baina azken bi hilabeteotan bazkide kopurua asko gehitu da, eta lokal berriarekin ere gehitzea espero dugu.



Sebas Lozano
Al-Andaluseko idazkaria



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

SFXn greba

Greba egin zuten joan den ostiralean, San Franzisko Xabierren batxilergoko lehen eta bigarren mailan dabiltzan ikasleek. Idigoras atxilotu zutela eta egin zuten greba. Eguerdian manifestazioa egin zuten erdialdean.

Pintadak Batzokian

Joan den ostiralean, gaueko 12ak inguruan, burdinezko barrekin Arrasateko Batzokiaren leihoak apurtzen ahalegindu ziren hiru gazte, baina ez zuten lortu. Horrez gain, Batzokiaren horman hainbat pintada egin zuten.

Harrera ona antzerkiak

Orain taldeak Amaia antzokia erdira betetzea lortu zuen joan den zapatu gauean. Antzerki taldeak "Besarka Gaitezen, Foleville" lana eskaini zuen eta ikusleen esanetan antzezpena bikaina izan zen. Ez ziren pasarte umoretsu eta dramatikoak falta izan, eta jendeak ondo pasatu zuen.

Antzerki tailerra abian

Zapatuan hasiera eman zitzaion AEDk antolatatu duen antzerki tailerrari. Egun batzuk lehenago izenematea zazpi lagunek egin bazuten ere, azken orduan hamabira igo zen parte hartzaileen kopurua. Tailerra abian dagoen arren,



Zigarrolako bizilagunak ijitoekin ados ez

Ijito atzerritar batzuk Kiroldegi aurreko aparkalekuan akanpatuta egoten direla eta, inguruan bizi direnak haserre daude. Bizilagun horien esanetan, tokia zaborrez beteta uzten dute eta etengabe eskean aritzen dira. Inguruko dendariak, gainera, behin baino gehiagotan lapurretan harrapatu dituztela salatu dute. Ijitoak auzoan egotearen aurka dauden bizilagun batzuk 1.000 idatzi banatu zituzten Zigarrolan asteazkenean. Arazoa konpontzea eskatzen zaio Udalari idatzian. Orain dela hilabete eta erdi hasi ziren ijitoak Musakolara hurbiltzen.

oraindik izenematea zabalik dago.

Ertzantzaren artezilaria-riak etorri

Igande goizean pertsona batek poltsa bat aurkitu zuen Garibai geltokian. Poltsa ez zuen zabaldu baina eskuetan hartu eta Ertzantzara eraman zuen susmagarria zelakoan. Ertzantzak artezilariei deitu zien eta ertzantzan bertan indargabetu zuten. Poltsa barruan saskibaloiko entrenatzaile baten gauzak zeuden. Itxura denez geltokian ahaztuta utzi zuten.

Nortasun agiria Eibarren ez


Hemendik aurrera Eibarren ez dute berrituko nortasun agiria. Aurrerantzean, beraz, edozein hiriburutara joan beharko da agiria berritu edo egitera.

Jose Luis Mendiartx hil

Joan den zapatuan hil zen Jose Luis Mendiartx Elexpuru, hainbat urtetan Arrasaten zinegotzi izandakoa. Hasierako urteetan UGTn egin zuen lana Mendiartxek eta gero, alderdi sozialistaren zinegotzi izan zen Oñatiko eta

Arrasateko Udalean.

Zapatuan bertan bihotzekoak eman ondoren hil zen 63 urte zituen arrasatearra. Bere aldeko hileta elizkizunak igandean egin ziren.



JAIOTZAK

- Ainhoa Arana Murumendiaraz. Otsailaren 13an.
- Ikeme Garcia Hermosel. 16an.
- Julen Barquero Ferreira 17an.
- Andoni Arratibel Garcia. 18an.
- Lierni Etxebarria Mondragon. 22an.

EZKONTZAK

- Segundo Uribetxebarria Bolinaga eta Ane Jesus Aranegi Mondragón. Otsailaren 24an. Elizatik.

HILDAKOAK

- Rafael Sanchez Tena. Otsailaren 17an. 30 urte.
- Paula Berriokategortua Murgoitio. 19an. 85 urte.
- Eustaquio Peña Barandiaran. 19an. 80 urte.
- Benita Isas-Isasmendi Ezquerra. 23an. 89 urte.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



**Taberna-jatetxea
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69



* Jose Luis Agirretxe

Garizuma, gaur?

Ez du prentsarik; ez du zentzurik sinesgabentzat. Eta fededunontzat?

Mundu honetan zerbait nahi duenari, zerbait kostatzen zaio. Begira etxebizitza erosi nahi duenak, petrina zenbat hestutu behar duen; begira edozein kiroletan saiatzen denari; begira gorputz liraina eduki nahi duenari... zenbat gauzari uko egiten dieten. Inork ez du esango uko egiten dieten gauza horiek txarrak direnik; bestela, adio gu.

Gure artean Garizumak ez du prentsa onik izan, ze... iruditzen zait lege batzuk eman zaizkigula arrazoi gehiegirik azaldu gabe: barau egin behar da... zergatik? Bijili tokatzen da... zergatik? Gure etxean betidanik horrela egin delako; horrela ikasi dugulako...

Ezin genezake ahaztu fededunontzat nondik sortzen diren ohitura hauek, arau hauek. Eta lehenengo arrazoa Bazkoa da. Bazkoa luze espli-

katu beharko genuke, Garizuma ulertzeko. Bestela lege hutsean eta hutsezko legean jausiko ginatete.

Bazkoa: Jesusen Heriotz eta Bistueran Jaungoikoak eskua luzatzen digu gizakioi; Bizia bizitzera deitzen gaitu; bere adiskidetasunean bizitza ematen digu. Eta fededunok, bataiatzen garenean eta Bataioa berritzen dugunean, eskaintza hau onartu egiten dugu; eta eskaintza honen arabera bizitzen hasten edo saiatzen gara. Nork esan dezake maldan behera, edo laua bederen egiten zaionik? Gutxiagorik ere. Gustatuko li-

.....

"Akaso gehiago ahalegindu beharko genuke behartsuenen alde lan egiten; urrutira joan gabe bakoitza bere portalekoekin solidario izaten"

tzaizuke? Prest ahal zaude hemendik abiatzeko? Hemen datozke Garizumako kristaun arauak. Nolabait esanda: Geure buruaren jabe egiten gara, gure izakera eskuetan hartzen dugu, eskaintzen zaigunari tokia egiteko, eta horren arabera bizitzeko. Ugartitasun hori guregan sartzeko, guregan tokia egiten saiatzen gara. Baraua eta abar honen adierazpen izango liratenke.

Behar bada, gaur ez du zentzu handirik barauaz, Bijili, etab. hitzegiteak. Akaso gehiago ahalegindu beharko genuke behartsuenen alde lan egiten; urrutira joan gabe bakoitza bere portalekoekin solidario izaten; mihia (hezurbako hori) motz lotzen; astialdiak besteentzat erabiltzen; urriki bizitzen; gehiegikeriak murrizten; kapritxoetatik barau egiten; noizean behin telebista itzaltzen, etab. etab. Eta, edozein arlotan gaurkutzen garen bezala, Jaungoikoaren Hitza irakurri Haren borondatea eta asmoak jakiteko, bakardadean edo (eta) elkarteetan otoitz egin... gure kristau-bizitza jator gaurkutzeko. Ala aski dugu haurtzaroen ikasi genuenarekin?

Dena den, ez nituzke nik lehengo ohiturak kenduko. Izan ere bijili elkarteetan, familiar egiten duzu. Otoitz, lehen behintzat, gehienbat familiar egiten genuen. Familiar, elkarteetan ikasi genuen Jaungoiko ezkutu horri zuzentzen. Izan ere, elkarteak, gizarteak, senitarreak zer esanahi handia dute gizakiontzat.

* FRANTZISKOTARREN NAGUSIA

USTEAK USTE

GARIZUMA

Katolikoek izaten duten damutasunerako eta onbideratze gogarteak aldi berezia. Horrela dio hiztegiak Garizuma definitzean. Erreflexio garaia, barkamenerako egunak.

Kristau izan ala ez, ez litzaiguke gaizki etorriko denori noizean behin norberaren barrura begiradaxo bat ematea gure jarrera eta jokaerak ikus eta azter ahal ditzagun. Eta, ondorioz, etorkizunearako beharko liratekeen neurriak hartu eta praktikan jarri.

Ez dugu, ez, hain beharrezkoa den hausnarketarako astirik hartzen. Hausnarketa, ondo edo gaizki gabiltzan jakiteko. Gure gizarte honek exijitzen dizkigun eskuzabalatasuna, solidaritatea eta borondatea nahiko ala diren neurtzeko. Hausnarketa, besteen ideiak aztertzeko eta gureak zalantzan jartzeko. Politika munduan sarturik gure alderdian egon daitezkeen hutsegiteak eta ezinikus-teak autokritikatu ahal izateko. Eta besteen erizpideak entzuteko gai izan gaitzen.

Beharbada, ez dugu ezertarako beharko horrelako ejerziorik. Bakoitzak, berea. Ez gara orain zalantzan jartzen hasiko norberaren ideiak eta ekintzak. Ahal duguna egiten dugu, zu! Barneratze hori, gainera, lekaimeen gauza da. Horrela pentsa dezakeen gizarte-rik ez dugu behar, gaixorik baitago. Txarrena, horrelako gizarte bat lortzeko bidean gaudela, egunero ikus, entzun eta irakurtzen ditugun gauzek besterik ez digute erakusten eta.

JOSE RAMON ELORTZA

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50



Presoen Euskal Herriratzea eskatzeko zer egin duten galdetuko die Senideak-ek alderdiei.

Senideak-en galderei erantzun beharko diete Udalako alderdiek

aur, arratsaldeko 7etan, udal plenoa burutuko da eta ordu berean Seberon asanblada egin ondoren, Senideak-eko kideak pleno aretora hurbilduko dira alderdien erantzunak entzutera.

Azaroan egin zen plenoan Senideak-en mozioa puntuz puntu bozkatu zen, eta Instituciones Penitenciarias-i presoak Euskal Herrira ekar zitzala eskatzen zuena aurrera ateratu zen. Horregatik, hori eskatzeko zeregin duten eta Udalari erabakiak zertarako balio duten galdetuko diete alderdiei. Aurrez ere gai hori aztertu denean gertatu den moduan, seguruenik beroa izango da gaurko plenoa, elurraren eraginez astebete atzeratu behar izan dena. Zerrendaz kanpo abenduan burutu zen plenoan galdera bera egin zitzaizen alderdiei eta HBk eta EBak salbu, gainontzeko alderdiek ez zuten azalpenik eman. Pleno hartan, erantzunak eskatzeko idatzia aurkeztuko zela adierazi zuten Senideak-ekoek.

Horrez gain, hirigintzako hainbat gai ere jarriko da mahaigainean. Garagartza-Barrutietarako urbanizazio plana Diputazioak onartu ez zuenez proiektuan aldaketak egin behar izan dira, eta orain horiek jasotzen dituen proiektuari behin-behineko onespina eman beharko dio udalbatzak. Garagartzako Barrutieta inguruan 85 etxebizitza berri egingo dira. Arrasateko Udalak iazko apirilean eman zion argi berdea proiektuari, baina esan bezala aldaketak egin behar izan dira Diputazioaren eskariz.

Bestalde, PESArekin hirigintza hitzarmena sinatzea erabakiko da. Puntu hori aurreko plenoan ere aztertu zen, baina ordaindu beharreko kopuruan desadostasunak izan zirela eta mahaigainean geratu zen.

Izendapenei dagokienez, Kutxaren Asanblada Nagusian Udalaren Kontseilari Orokorrek zeintzuk izango diren jakinaraziko da.

Biztanleen Udal Errolda berritu

Maiatzean eta ekainean biztanleen Udal Errolda berrituko dela eta, Udalak 20 lagun kontratatuko ditu. Kontratazioak INEMen bidez egingo ditu.

Karrantzako Udalaren abisua

Karrantzako (Bizkaiko) Udalak idatzia bidali du Arrasateko Udalera Industria eta Energia Ministeritzak dituen asmoen berri emateko. Idatzian esaten denez, Ministeritzak tentsio altuko linea elektrikoa egin nahi du Portugalgo eta Frantziako sareak lortzeko, eta linea hori gure bailaratik pasatuko litzateke. Karrantzako Udala proiektuaren aurka dago, linea elektrikoak ingurugiroari eta gizakion osasunari kalte handia egingo diela uste du eta. Horregatik, gainontzeko Udalei ere neurriak har ditzatela eskatu diete. Momentuz, talde ekologistek eta Mankomunitateari emango die proiektuaren berri Udalak.

Zaborrei buruzko datuak

Mankomunitateak iaz Akeira eraman zen zabor kopuruaren berri eman du. Deba Garaian eta Behean 36 tonelada zabor jaso ziren iaz eta Arrasaten 5 tonelada eta erdi. Iaz bestalde, paper eta beira gehiago utzi zen horretarako dauden edukiontzietan.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Gorabeherak bi urteko umeendako gela antolatzearen inguruan

Erdialdean eskaintza publikorik ez dagoela eta, guraso talde batek bi urteko umeendako gela antolatzeko egin duen eskariaren aurka agertu da Arrasateko Herri Batasuna.

HBren ustez azken urteotan jeitsi egin da jaiotze tasa eta horrek erakusten du, eraikuntzei dagokienez Arrasateko eskaintza eskolarra nahikoa dela. Eskaria egin duten gurasoek bi urteko umeek ikastetxea etxetik gertu izatea garrantzitsua dela uste dutela eta, HBk adierazi du ikastetxea aukeratzeko orduan hurbiltasunari baino eskolak duen hezkuntza ereduari garrantzia handiagoa ematen zaiola.

Udalean hezkuntza saila



Erdialdean eskaintza publikorik ez dagoelako egin dute eskaria.

zuzentzen duen alderdiaren dako, eraikinaren eskariari erantzutea Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren kompetentzia da eta Udalarena, berriz, funtzionamendu eta manteni-

mentu gastuei aurre egitea. HBk dio, Udalak ez duela irakaskuntza zentru bat kokatzeko lokal egokirik, eta berria erosteak justifikaziorik gabeko diru kopuru bat gastatzea

esanahi duela.

Eskaria egin duten gurasoek hala ere, beste era batera ulertzen dute auzia. Ramon Ugalde, gurasoen taldeko partaidearen berbetan, "haur hezkuntzaren beharrei erantzutea Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eta Udalaren betebeharra da." Ugalderekin ustez, gainera, "Ferixalekua eta Olarte Hezkuntza Sailarenak izanik Udalak administratzen ditu eta beraz, "eraikuntza berririk egin barik hor toki bat izan dezakegu, eta uste dugu eskaria legezkoa dela".

Guraso taldeak adierazi duenez, Jaurlaritzak agindu die irakaslea jarriko diela eta orain lokala aurkitzea baino ez zaie falta.

CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



University of Cambridge
Local Examinations Syndicate
MATRIKULAK: MARTXOAREN 1etik 14ra

Azterketak eta datak

K.E.T. (Key English test).....	Ekainak 15
P.E.T. (Preliminary English Test).....	Ekainak 15
F.C.E. (First certificate English)	Ekainak 11
C.A.E. (Cambridge Advanced English) ...	Ekainak 13
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)...	Ekainak 12

Azterketa "Eibar Armeria Eskolan" izango da

Cambridge Examinations Centre
Es-438

Informazioa eta matrikulak

Arrasate: PARLANCE	77 06 83
CIM-AHIZKE	79 01 32
Bergara: ESPOLON SCHOOL OF ENGLISH.....	76 03 53
Durango: COMPUTIT ENGLISH INSTITUTE	620 20 20
Eibar: ANGLO-AMERICAN	10 64 57
INTERIDIOMAS	12 10 03
LINK SCHOOL OF ENGLISH	10 39 59
UKITZE.....	70 25 59
Elgoibar: KEY ACADEMIA DE INGLÉS.....	74 30 44
KENSINGTON SCHOOL OF ENGLISH	74 02 36
Ondarroa: HOWDY ACADEMY	613 43 26
Oñati: A & M SCHOOL OF ENGLISH	71 61 37
CIM-AHIZKE	71 60 00



1. Joan Ander Arrieta
2. Iñaki Alkiza
3. Koruko Aizarna

Koherentzia nazionalista Euskadi defendatzeko.

Eusko Alkartasunak koherentzia nazionalista du, bere herriaren aurrerapenaren alde borrokatzeko bide sendo eta baketsua aukeratuz. Izan ere, koherentzia, demokraziarekin batera, herriaren borondatea defendatzea baita, indarkeriaren esanetara makurtu gabe; koherentzia, gure Herriaren eskubideak defendatzea da, ahalegin tinko berbera eginez hemen eta Madrilén: koherentzia, gure herrikideen eguneroko arazoentzat irtenbide aurrerazaleak proposatzea baita.

Konpromezu horrekin aurkezten dizuegu gure hautagai-zerrenda, gaitetasuna eta berrikuntza, esperientziarekin uztartuz: jende irekia eta kementsua biltzen duen hautagai-zerrenda duzue, aurrean ditugun erronkei ongi erantzun ahal izateko. Gure lan prestakuntza gure Herriaren zerbitzuan jartzeko prest gaude, beti ere talde sendo baten esperientzia eta laguntza izanik, politikan iharduteko modua aldatzeko.

Gipuzkoak Herri honen helburuak tinko eta baketsu defendatuko dituen norbait behar du. Gure herrikideek, inolako baldintzarenik gabeko ordezkaririk behar dituzte, Madrilén norberaren interes eta mesederako diren eta gure herriaren aurrerapenari bat ere lagundu ez dioten itunen baldintzarenik gabe, gure Herriaren eraikuntzan aurrera egiten galera izan digun indarkeriazko hausturaren diskurtso eta estrategia politikoaren baldintzarenik gabe.

Eusko Alkartasunak gure herriaren irudi berri bat eman nahi du, Bakearen eta aurrerapenaren alde lan egiten duen eta Madrilén zer esan asko duen Herri batena.

Gure taldeak honako helburuak lortu nahi ditu:

- Bakerako Irtenbideak.
- Gure ekonomia suspertzen eta enplegua sortzen laguntzea.
- Norberaren askatasuna eta Herri gisa ditugun eskubideak erabat errespetatzea.
- Autogobernuan aurrerapauso sendoa ematea.
- Gure aiton-amonoi arreta hobea eta baztertutako kolektiboentzako laguntza ematea.
- Ustelkeriaren aurkako neurri eraginkorrak onartzea.
- Euskal Herriak European partaidetza eraginkorragoa eta benetakoagoa izatea.

Eusko Alkartasuna, Euskal-herriaren ahotsa Madrilén

Eusko Alkartasunak konpromezu osoa hartzen du Kongresuan eta Senatuan euskal nazionalismoaren koherentziarako ahotsa izaten jarraitzeko eta gure Herriaren interesak defendatzeko, aurrerapena, autogobernua eta bakea maite duten euskaldun guztien bide tinko eta baketsua izanez.

Politika egiteko erabiltzen diren moduak aldatu nahi ditugu eta ustelkeria eta boterearen gehiegikeriak desagertarazteko ahaleginean jarraituko dugu, horretarako, guztiz gure alderdiaren jabe izateak ematen digun askatasunaz baliatuko gara, azken zortzi urte hauetan Madrilén burutu diren interes-paktoen menpe jarri nahi izan gabe, eta haustura-estrategian ere erori gabe, herriaren benetako borondateaz ahazturik eguneroko arazoei irtenbide bat ematen saiatzea baztertzeko duen indarkeria hutsaren bidetik doalako.

Erabaki tinkoa hartu dugu Estatuaren egituren inguruko indarkeriako sare ilunak argitu eta ustelkeriaren aurkako borrokan jarraitzeko, Euskal Herriaren normalizazio politikoa eta bakea lortzeko ihardueran oztupo larria baitira.

Ongizatearen Estatu defendatuko dugu, zailtasun larrienak aurkitzen dituzten pertsonetikiko-gazteak, emakumeak, aiton-amonak-elkartasunezko iharduera eraginkorrak bultzatuz, gizarte zuzenago bat osatu nahaien, lanerako eskubidea eta aukera berdintasuna benetako errealitate izan daitezkeen.

Argi eta tinko gogorazi nahi dugu, era demokratiko eta baketsuan adierazitako euskal herriaren borondate guztiek eta aldioro errespetatzea nahi baldin badugu, herritarren borondate hori gauzatzeko aukera emango duten legezko bideak jarri beharko direla.

Bide tinko eta baketsuaren aldeko ahalegina eskatzen dizugu:

- Enplegua eta Ongizatearen Estatuaren gizarte-emaizta onen alde lan egiteko.
- Euskal Herriak European bere ahotsa izan dezan defendatzeko.
- Autodeterminazioaren eskubide demokratikoa bakearen bidetik defendatzeko.
- Ustelkeriaren aurka indar osoz borrokatzeko.
- Iharduera politikoan gardentasuna bultzatzeko.
- Edozein eratako militarismoaren aurka eta Derrigorrezko Soldaduzka desagertzearen alde jartzeko, bakearen alde dauden intsumisoak erabat babestuz.

Bide Tinko eta Baketsua

Igone Martinez de Luna • Begoña Lasagabaster • Carlos Garaikoetxea • Jasone Irrargarri • Pello Yaben





Kongresurako azken hauteskundeak 93an egin ziren, eta Arrasaten PSOE atera zen garaile.

Gutxi gorabehera 20.000 lagunek botoa emateko aukera

Dena gertu dago Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak burutzeko. Ferixalekuan, Santamainako auzo alkatetzan, San Antolin ikastolan, San Andres eskolan, Erguin eskolan eta Jokin Zaitegi ikastolan eman ahal izango da botoa; igandean goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara.

Albiste idazterako orduan errolda heldu barik bazegoen ere, gutxi gorabehera 20.200 lagunek izango dute botoa emateko aukera. Hautes-mahaietara hurbildu eta botorik ezin dutela eman jakiten dutenek Udaletxeko idazkaritzan, goizez eta arratsaldez, debeku horren zergatia ezagutu ahal izango dute.

Espainiako Legebiltzarrerako azken hauteskundeak 93an burutu ziren, eta Arrasaten PSOE irabazi zuen. Emaitzak honako hauek izan ziren: PSOE (3.712), HB (3.186), EAJ (2.480), EA-EUE (2.115), PP (1.034), EB (794) eta besteak (326). Abstentzioa, berriz, %32,26koa izan zen, hau da, 6.627 lagunek ez zuten botoa eman.

Beti moduan ARRASATE PRESSEK eta Arrasate Telebistak jarraipena egingo diete hauteskudeei. ATBk programa berezia eskainiko du igandean gaueko 10etan. ARRASATE PRESS-ek hauteskunde emaitzei buruzko orri berezia aterako du, astelehen goizerako.

Hautes-mahaietako presidenteen zerrenda

Botoa emateko 30 mahai jarriko dira Arrasaten eta lau interbentoreez gain, zozketaz aukeratutako presidente bat eta bi bokal izango dira mahai bakoitzean.

Mahaietako presidentek honako hauek izango dira: Begoña Goiboru, Kepa Zudaire, Jose Antonio Garcia, M. Teresa Letona, Itxaso Nuin, M. Pilar Larrañaga, Victor Errarte, M. Lurdes Uribarren, Emilio Moreno, Miguel Angel Gonzalez, Javier Torga, Rosa Maria Hernandez, Estitxu Unzurrunzaga, Izaskun Ezpeleta, Julio Sierra, Alberto Joaquin, Arantza Valgañon, Gloria Idigoras, Miren Zuazola, Jose Andres Garro, Fernando Vinagre, M. Teresa Iriarte, Arantza Urrutia, Elvira Gamboa, Jesus M. Valtierra, Rosana Granados, Jose Maria Luque, Andoni Gorospe, Izaskun Zubizarreta eta Vicente Iñiguez.

SUKALDEAK
Berango

ERAKUSKETA
Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
Tfnoa: 79 01 92

Orain bitrozeramika eta labe bat erosten badituzu...

**ZOZKETA
BARIK!**



**Luxozko
apartahotel
batean 7 gau
pasa ahal izango
dituzu dohainik.**

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Hamazazpigarren ihardunaldia.*
- *Taldeen aurkezpena:*
Pub People, Fosforos, Pepelus,
Zotz-Motz, Frantziskanner,
6. Proiektua eta DKB.



Zaldibar txapelketako lehen fasea bukatu zen astebukaeran. Miltzoko bakoitzetik zortzi taldek lortu dute sailkatzea. Egia esateko ez da sorpresa handirik izan eta ohiko taldeek lortu dute txapelketan jarraitzea. Talde berriak egituratzeko zozketa martitzenean egin zen normaltasun osoz Monterronen. Horrela bada, beste lau talde osatu dira. Taldez talde gainbegirada bat emanez esan daiteke A eta B miltzokoak direla sendoenak. D eta E taldeek bigunagoak dirudite. Fase honek zazpi ihardunaldi izango ditu eta miltzoko bakoitzetik lau onenak sailkatuko dira.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

BAZAR
TOKI ON

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1
Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Sailkapenak

Sailkatutako taldeak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Frantziskanerr	17	13	3	1	74	37	29
Orlando Piratas	17	14	0	3	98	49	28
Argi Ibilili	17	12	1	4	112	44	25
Totem	17	11	2	4	75	52	24
Sokoakoak	17	10	4	3	92	53	24
Sortu Informatika	17	10	3	4	73	65	23
Arrasate Kirolak	17	10	2	5	51	50	22
Kamasutra	17	9	3	5	72	45	21

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	17	14	2	1	87	46	30
Txeyenex	17	14	1	2	67	32	29
Adelaida Haizea	17	13	1	3	65	33	27
Hirei	17	12	0	5	68	38	24
AC Surcos	17	11	1	5	73	54	23
Okoretegi Taberna	17	10	2	5	61	27	22
DKB	17	11	0	6	61	51	22
Los Heredia	17	10	2	5	46	34	22

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Ati que te impor.	17	14	1	2	71	44	29
Irati STS	17	14	0	3	92	36	28
Betrayer	17	12	1	4	82	43	25
Nuevo taberna	17	11	3	3	86	46	25
Anbotoste	17	11	2	4	62	43	24
Lautherbrunnen	17	11	2	4	88	52	24
Tritiki	17	10	3	4	68	29	23
Insert Coin	17	10	1	6	82	57	21

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Aurrera Bolie	17	13	2	2	71	45	28
Pub People	17	13	0	4	92	50	26
Cerveceria Leintz	17	12	3	2	64	30	24
MSM Ing. Int.	17	11	3	4	64	29	23
Zotz Motz	17	9	3	5	60	44	21
Artzankos Udalaitez	17	9	3	5	51	43	21
Danok lagun	17	8	5	4	55	45	21
Perrahotsa	17	9	0	8	51	46	18

● Bigarren faseko zozketa egin zen asteartean Monterronen, talde berriak aukeratuz. Fase horrek apirilaren 21a arte iraungo du eta multzo bakoitzetik lau talde sailkatuko dira hurrengorako.

● Martxoaren 9an Uribe Auzoa txapelketa hasiko da. Izenematea zabalik egongo da martxoaren 4 eta 5ean Monterronen arratsaldeko 7etatik 8.15etara.

Emaitzak

A Taldea
Arrasate Kir. 1 Gaztetxokoa 0
Argi Ibilili 7 Kamasutra 3
Bukanak 0 Sortu Inform. 1
Orlando Piratas 7 D.A Iriztu 3
Toss Tehaman 0 Sokoakoak 1
Tronkoteak 0 Frantziskanerr 1
Totem 5 Jotakabau 4

B Taldea
Los Heredia 5 6º Proiektua 0
AC Surcos 1 Aizpun blla 0
Ojo Avisore 0 DKB 1
Txeyenex 1 Adelaida haizea 3
Fosforos 5 Lorategi 5
Kopyprest 1 Altza Porru 0

D Taldea
Exc Lete 2 - Perrahotsa 1
Pub People 5 Petroleros 2
Zotz Motz 6 Aurrera Bolie 0
Pepelus 1 Danok lagun 2
MSM Ing. Int.1 Cerveceria Leintz 1
Artzankos Udalaitez 1 Baneuko 0

E Taldea
Anbotoste 2 Lautherbrunnen 1
Insert Coin 8 Potrosorri 0
Betrayer 8 Ganbelas 1
Nuevo taberna 1 Txarokis 0
Borrock Roll 4 HMKL 5
Irati STS 1 Tritiki 0

Hurrengo partiduak

2. Fasea

Lehen Ihardunaldia

Larunbata 2

Zaldibar

- 8.50 Hirei - Perrahotsa
- 10.00 A ti que te importa - Kamasutra
- 11.00 Argi Ibilili - Zotz Motz
- 12.00 Betrayer - Sortu Informatika
- 13.00 MSM Ing Int- Danok lagun
- 14.00 Irati STS - Anbotoste
- 15.00 Frantziskanerr - DKB
- 16.00 Txeyenex - Okoretegi taberna
- 17.00 Fosforos - Lautherbrunnen
- 18.00 Cerv Leintz - Los Heredia
- 19.00 Nuevo taberna - Sokoakoak

Igandea 3

Zaldibar

- 8.50 Adelaida Haizea - Insert Coin
- 10.00 Aurrera Bolie - Artzankos Udalaitez
- 11.00 Orlando Piratas - AC Surcos
- 12.00 Totem - Tritiki
- 13.00 Pub people - Arrasate Kirolak

17 Ihardunaldia

Lehen fasea

Larunbata 2

Iturripe A

- 14.00 Kakajauri - Alealee
- 15.00 No Comment - Los Dimy
- 16.00 Resakas - Kriskibalda
- 17.00 Gualtrapas - Uglys Txinato

Iturripe B

- 14.00 Cartonajes Igamo - Ke Oxtias
- 15.00 Const Fercon - Arrasate Zoo
- 16.00 Kirten Tropel - Los Dalton
- 17.00 Leya - Koka Juniors

Bigarren faseko talde berriak

A taldea

- Ati que te importa
- Txeyenex
- Argi Ibilili
- Hirei
- Perrahotsa
- Zotz Motz
- Okoretegi taberna
- Kamasutra

B Taldea

- Fosforos
- Orlando Piratas
- Cerveceria Leintz
- Nuevo taberna
- Sokoakoak
- Los Heredia
- AC Surcos
- Lautherbrunnen

D taldea

- Frantziskanerr
- Pub People
- Adelaida haizea
- MSM Ingenieria Integral
- Danok Lagun
- Insert Coin
- Arrasate Kirolak
- DKB

E taldea

- Aurre Bolie
- Irati STS
- Betrayer
- Totem
- Tritiki
- Sortu Informatika
- Anbotoste KT
- Artzankos Udalaitez



Pub People



Fosforos



Pepelus



Zotz-Motz



Frantziskanner



6. Proiektua



DKB



Kantxak elurrez kestalita zeudelako beranduago hasi ziren txapelketako neurketak. Goiz goizean pala eskuan hartu eta gerria ondo makurtuz Zaldibarko kantxa garbitzen ibili ziren. Azkenean itxuroso utzi eta bigarren fasera sailkatzeko aukera zuten taldeen neurketak jokatu ziren.



Xabier ARZALLUS

Euskadi barruan eramanaz bakarrki, defenda daiteke kanpoan. Euskal Taldea iristen den lekuan, hantxe izango dira ordezkatuak herri honetako bakoitza eta guztiak. Horixe da eta horixe izango da, gure ardurarik nagusiena.

EUSKADI
HAN ET



Horretarako, ordea, ezinbestekoa da euskaldun guztiak ordezkatu eta aldeztuko dituen talde parlamentario indartsua. Euskadi bere etorkizunaren jaun eta jabe izan dadin, zure ahotsa entzun behar da. Aldeztu zure herria eta zure interesak. Martxoaren 3an, zuretzat balioko botoa euskal botoa da.

GIPUZKOAREKIN
HAN ETA HEMEN
ZURE BOTOA 



LOIOLA Isaac
ARRIOLA José Luis
GARMENDIA Mertxe
GONZALEZ DE TXABARRI Joxe Joan
ARANA Montse
LAZARO Carmen



RODRIGO Txaro
ALBISTUR Xabier
GARATE Castor



Aro berria hezkuntzan

Beñardo Kortabarría

Aztoratuta dabil hezkuntza mundua. Oinarrizko ikasketak lehenengo, batxilergoa ondoren eta segidan selektibitatea, hori izan da azken urteotan unibertsitatera iristeko askok eta askok egin behar izan duten ibilbidea. Beste bidea toki beretik abiatu izan da, oinarrizko ikasketetatik; hortik lanbide hezkuntzara pasatzen zen, eta bertan geratu edo goi-mailako ikasketak egiteko aukera zegoen. Egitura ezagun hori, askoren burukominerako, aldatu egingo da irailan.

Sei-zazpi urterekin hasten ziren umeak eskolan urte asko ez dela. Ordura arte, gurasoen lana izaten zen seme/alaben hezkuntza. Irten, berriz, gura izanez gero, hama-lau urterekin irten zitekeen.

DERRIGORREZKO HEZKUNTZA

Azken urteotan erabat aldatu dira gauzak, haurrak bi urterekin hasten dira eskolan, eta irailetik aurrera, gutxienez 16 urte bete arte bertan egon beharko dute. Laster, gainera, urtebeteko umeak ere har-



Espezializaziorako aukera gehiago izango da irailaren hasiko den ikasturtean.

tuko dituztela aipatzen dute ikastetxeetan. Oinarrizko aldaketa horren ondorioz, hainbat urtez indarrean egon den hezkuntza-egitura, OHO, BBB, UBI, Lanbide Heziketa eta REM desagertu egingo da. Haur Hezkuntza 6 urtera artekoa izango da, gero 12 urtera arte Derrigorrezko Lehen Hezkuntza egin beharko dute gazteek, eta azkenik Derri-

gorrezko Bigarren Hezkuntza 16 urtera arte. Azken etapa honetan, oraingoarekin alderatuta, aldaketa nabarmena somatzen da, ikasleek beren gusto edo nahiak bideratu ahal izango dituzte eta, gai batzuk aukeratuz eta beste batzuk ez, gero ikasi nahi dutenaren arabera. Horraraino, bide berdina egin beharko dute ikasle guztiek, hor

bakoitzak berea hartuko du.

Aipatutako ibilbidean, ikasturtea errepikatze bakoitzi bi aukera egongo dira. Ondorioz, 18 urte bete eta derrigorrezko hezkuntza gainditu ez dutenei, ez zaie aurrera egiten utziko. Horientzat Berme Sozialeko Programak antolatu dira, gaur egungo Lantegi Eskolaren antzeko irtenbidea. Gainontzekoek,



Hamasei urtera arte derrigorrez egon beharko dute ikasleek ikastetxeetan.

berri, eskola graduatua jasoko dute.

BI BIDE

Tituloa besapean, aukera bi: batxilergoa edo hezkuntza profesionaleko formakuntza zikloak. Batxilergoak bi urteko iraupena izango du eta lau alorretan garatuko da: teknologikoa, artistikoa, humanistikoa, eta zientifikoa eta osasuna. Hortik, unibertsitatera. Gaurkoaren antzekoa izanik, eskema hori ulertzeko ez dago zailtasun handirik. Zailtasunak hezkuntza profesionaleko formakuntza zikloetan egon daitezke. Ziklo hauek bi mailatan bereizten dira, ertainak eta gorenak. Graduatua ateratzen ondoren, zuzenean hartu daiteke maila ertaineko edozein formakuntza ziklo, gaurko moduloen gisara orduen arabera funtzionatuko dutenak. Bukatutakoan, zuzenean lan mundura sartu edo batxilergoa egin daiteke, baina

ezingo da maila goreneko zikloetara joan. Hara iristeko batxilergoaren errepidea hartu beharra dago edo gutxienez maila ertaineko zikloa egin ondoren, bi urteko lan esperientzia erakutsi beharra. Eta hor sortzen da guraso eta irakasle askoren kezka, maila ertaineko zikloa burutu ondoren lan mundua ez ote den ikasleen beharraz aprobetxatuko baldintza txarreko kontratoak eginen. Eskailera luze honetan, oraindik beste harmaila bat, maila goreneko zikloetako ikasleek unibertsitatera joateko dutena. %30aren zatitza, noten arabera, za-

balik egongo dira unibertsitateko atak.

ESTREINALDIA IRAILEAN

Ikusten denez, nobedade ugari irailerako. Dena dela, guztiek ez dute berrikuntza eraginik nabarmenduko, orain 6. eta 7. maila egiten ari direnek bakarrik. Seigarren mailan daudenak, Derrigorrezko

gorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailan hasiko dira, eta zazpigarrenekoak bigarrenean. Horretaz gain, aipagarria da une honetan BBB, REM eta LH egiten ari direnek eredu zaharrari jarraituko diotela.

Adostasunak eta desadostasunak alde batera, mapak agintzen du Derrigorrezko Hezkuntza non eskainiko den

ESKOLA MAPA DEBAGARAIAN

Egituraren aldaketan ondorioz, hain eztabaidatu den Eskola Mapa finkatu du Jaurlaritzak ikastetxe publikoetarako. Adostasunak eta desadostasunak alde batera, mapak agintzen du Derrigorrezko Hezkuntza non eskainiko den. Deba Garaian Bergarako eta Arrasateko zonaldea bereizten dira.

Bergarako zonaldean, lehenengo hezkuntza emateko Bergarako San Martin ikastetxea, Elgeta eta Antzuolako Herri Eskolak, Soraluzeko Del Moral Herri Eskola eta Soraluzeko Ametsa Ikastola publikatua egongo dira. Bigarren Hezkuntzarako, berriz, Bergarako Institutua, Bergarako Eskola Profesionala eta Soraluzeko Instituto berria daude. Azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondokoa eta Lanbide Eskolan eta Institutuan egin ahal izango da.

Arrasateko zonaldean lehen hezkuntzarako zazpi ikastetxe finkatzen ditu eskola mapak: Eskoriatzako Eceiza Herri Eskola, Aretxabaletako Kurtzebarri, Arrasateko Erguin, San Andres eta Musakola, Aramaioko San Martin, eta Oñatiko Errekalde. Bigarren Hezkuntzarako, hauek: Aretxabaletako Kurtzebarri, Arrasateko eta Oñatiko Institutoa. Bukatzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiteko lau aukera egongo dira: Aretxabaleta Lanbide Eskola, Arrasateko Institutoa, Oñatiko Larraña Lanbide Eskola, eta Oñatiko Institutoa.

Jakina, aipatutako ikastetxe guztiez gain, hor dago ere ikastolen eta eskola pribatuen aukera, denek egokitu izan behar dute eta euren egitura irailean etorriko denari begira. Zalantzak, orain, gurasoentzat, hainbeste aukera egonda, nora eraman umeak?



Inguruak elurrez beteta zeudela aprobeztatuz Santa Teresako Xalo ileapaindegikoek famili bitxi eta ikusgarri bat egin zuten. Eskularruak jarri, elurra gogortu eta

argazkian duzuen figura polit horiek egin zituzten pazientzia handiarekin. Artista ederrak eginak ditugu Xalo ileapandegiko lagunak!



Frisiatik etorritako lagun hau bisitan etorri zen astelehenean Arrasatera. Non dagoen Frisia? Holandako herri bat da, eta bertakoek frasieraz hitzegiten dute. Argazkikoa **Onno Falkena** da, Frisiako

telebistako kazetaria. Kazetaria izanik herri komunikabideak gertutik ezagutu nahi izan zituen, eta Frisian argitaratzen duten aldizkarian ARRASATE PRESSi buruz argitaratu zen erreportaia ekarri zigun.



2.000 zuhaitz inguru landatu ziren astelehena eta ostirala bitartean Urkulun. Landaketan Deba Bailara oso-ko ikastetxeetako ikasleek hartu zuten parte. Arrasatetik San Viator ikastola eta Musakola-

IZEN PROPIOAK

● **Moises Altuna** 27 urteko Soraluzearrak Udaletxeko administrari orokorreko teknikari lanpostua lortu du. Hemen-dik aurrera zerbitzu batzordeko idazkari berria izango da. Moisesek zuzenbidea ikasi du.

● **Jon Ormaetxea** Arrasate atletikoko partaideak Fernando Larrañaga txirrindulari elkarteko partaidea ordezkatu du AUKEAko zuzendaritza batzordean. Jonek Oñatiko Gelma lantegian egiten du lan eta 39 urte ditu.

● **Julio Arevalo** Arrasateko Ertzandegiko arduradun berria da. Javier Sagastibeltza ordezkatu du Juliok. Orain arte Errenterriako Ertzaindegiko burua izan da.



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

OTORRINOLARINGOLOGIA

Zulueta eta Navarro Dreak (Arratsaldetan), Zerkaosteta, 17 behea	☎79 20 18
--	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea	☎79 20 18
---	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk.....	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....	☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6	☎79 50 75
---	-----------

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
--	-----------

Nesken futbito txapelketa hasteko dago AEDk antolatuta

AEDk nesken futbito txapelketa jarriko du abian bigarren aldiz martxoaren 9an. Lehen edizioak izan zuen arrakasta ikusita, animatu dira AEDkoak aurten antolatzera. Txapelketak ez du arau berezirik izango, epaileak azken fasera arte taldeetako kideak izango dira. Azken fasean beharbada Zaldibar txapelketako antolatzailereren batek bete dezake epaile lana. Partiduak San Viator txikin jokatuko dira zapatuetan, goizetan 9etatik ordubata arte. Txapelketak martxotik ekaina arte iraungo du eta San Juanetan finala egongo da jokuan. Izenemateko epea zabalik dago beraz interesatuok AEDra jo beharko duzue edota 77 12 28 zenbakira deitu, parte hartzeko 5.000 pta. ordaindu behar dira.

Txapelketak bi helburu izango ditu, kirola egin eta bide



Txakolintxintxau taldeak irabazi zuen iazko txapelketa.

batez euskara erabili. AEDkoek neurketetan euskaraz erabiltzea eskatzen dute, "kirola euskaraz ere berdin berdin egin daiteke horregatik "Jantzizu

kirola euskaraz" lemapean antolatu dugu txapelketa".

Iaz 10 taldek eman zuten izena eta antolatzailerak kopuru hori gainditzea espero dute.

Hori lortzeko jakina, Arrasateko emakume guztiei gonbitea luzatzen zaie izena eman eta txapelketan parte hartzeko,

Deba Garaiko judokak gazteak Arrasaten elkartu ziren

Deba Garaiko judoka gazteek Musakolako kiroldegian izan zuten zita Zapatuan. 80 neska mutil elkartu ziren entrenamendu berezia egiteko asmoz. Ekintza hori hasi baino lehen, Arrasateko Aikido taldeak erakustaldi polita eta interesgarria egin zuen. Erakustaldiarekin judoaren barruan beste modalitate batzuk ere badaudela erakutsi nahi izan zuten antolatzailerak. 8 urte beherako judoek Julio Gallego Arrasateko entrenatzailearen aginduetara



Judokek ederto pasa zuten entrenamendu berezian.

egin zituzten ariketak eta jokuak. Entrenatzailearen berbetan gaztetxoak dire-

nean ondo pasatzea dute helburu, beraz kirola euren mailara egokitu behar da.

Behin bukatuta, 10 urtetik 15 urtera arteko neska mutilak txapelketa bat izan zuten inguru honetan dagoen maila ikusteko.

Arrasateko judoek beste erronka batzuk izango dituzte hemendik aurrera. Martxoaren 9an eta 10ean Deba eta Ondarroako txapelketetan hartuko dute parte. Debako txapelketa martxoaren 9an izango da eta parte hartzaileak emakumeak izango dira. Ondarroakoan neskak zein mutilak hartuko dute parte.

Derbia Atxabalpen: Mondra eta UDA aurrez aurre

Mondrako emakumeek UDA taldearen bisita jasoko dute domekan arratsaldeko 4.30etan Atxabalpen. Arrasateko taldeak txartel guztiak ditu hiru puntuak lortzeko. Aretxabaletako taldeak traket hasi zuen denboraldia eta 21. ihardunaldia jokatu denean oraindik ez du bururik altxatu. Sailkapenean azken aurreko postuan daude 7 punturekin, bi neurketa irabazi, bakarra berdindu eta 17 galdu ondoren. Golei dagokierenez 12 sartu dituzte eta 123 jaso. Mondra bestalde liderra da 58 punturekin. Arrasateko emakumeek partidu bakarra galdu dute, bi berdindu eta 18 irabazi. Ikusita-koak ikusita badirudi Juani-na Garairen jokalariek gole-adaz irabaz dezaketela neurketa.

3. mailako Mondra eta Lagun onak

3.mailako Mondrak berriz, Lagun Onak izango du aurrean domekan arratsaldeko 5etan Garmendipeko fut-



Arrasatear eta atxabaltarren arteko derbia.

bol zelaian. Zivojeciven taldeak ez du neurketa samurra izango baina dagoen tokitik irteteko nahi eta nahiez behar du garaipena. Azpitiko taldeak 29 puntu ditu 26 norgehiagoka jokatu ondoren. Mondra 19. tokian dago 24 punturekin baina partidu bat gu-

txiako jokatu du. Domekarako bi baja izango dira Arrasateko taldean. Beñat Apraizek ezingo du jokatu lesionatuta jarraitzen duelako eta Aranburuzabala baja izango da txartelak direla eta. Gainontzekoak zelairatzeko moduan izango dira.

Zikloturisten lehen irteera

Arrasateko zikloturistek martxoaren 3an hasiko dute 1996eko denboraldia. Lehen irteeran Dorletara joango dira. Bertan txirrindularien zaindariari lore eskaintza egingo diote. Arrasateko irteera goizeko 10etan izango da, Montterondik. Arrasatear guztiak zaudete gonbidatuta.

Dorletako Ama Eskolaren aurkezpena

Dorletako Ama txirrindulari eskolak joan zen astean egin behar zuen aurtengo denboraldiko aurkezpena baina eguraldiaren erruz atzeratu egin zen ekintza eta datorren zapatuan martxoaren 3an burutuko da Gatzagan. Goizeko 10.30etan Dorletako santutegian lore eskaintza egingo diote Amabirjinari. 11.30etan talde eta babesleen aurkezpena egingo dute Venta Fria jatetxean. Ondoren luntxa izango da hurbiltzen diren guztientzat.

Arrasate eta Lalin nor baino nor

Arrasate eskubaloit taldeak Pontevedrako Lalin taldearen kontra neurtuko ditu indarrak zapatuan arratsaldeko 6.30etan Iturripen. Lalin sailkapeneko 5. tokian egon arren, talde osatuena dela dio Herrero entrenatzaileak. "Lalinekin jokatu eta jokatzeko uzten du. Guri jokatzeko uzten badigute erasoan ez dugu arazorik eta defentsan erne bagabiltza,

irabazteko aukera izan dezakegu". Nahiz eta Arrasateko entrenatzailea partiduaurrean baikor egon, beldur apur bat du etxean jokatu behar delako "etxean ez dugu ondo jokatzeko, urduri jartzen gara eta gaur arte ez dugu neurketarik irabazi". Galiziako taldean Geni ezker hegalekoa izan daiteke erabakiorra. Geni Teucroko jokalaria izan zen eta internazionala ere bai. Bere esperientzia nahi eta nahiezkoa da Galiziako taldean Arrasateko taldean bi baja izango dira; Kortabarria eta Ansuategi.

Urbina Maltzaga Iturripen

Urbina Maltzaga eta Viña Costeira azken sailkatua aurrez aurre izango dira Iturripen domekan arratsaldeko 6etan. Sailkapenari begira Arrasateko taldea da faboritua baina ez da ahaztu behar Viña Costeirak jarraian hiru garaipen lortu dituela eta ilusioz beteta etorriko dela laugarrenaren bila. Arrasateko Arteixo talde sendoaren kontra ira-

bazi egin zuen eta 7. toki hartu du sailkapenean. Goiko postuei tinko eusteko falta zaizkion bost neurketetan ezin da lokartu Samanigoren taldea. Joan zen astean Garbajosa, Cazorla eta Garai baja izan ziren baina euren lesioek hobera egin dute eta domekarako gertu izatea espero da. Bestalde Carlus Croves, Rodriguez eta seguruenera Iñaki Gomez Ourensera joango dira zapatuan Taugres Basconia taldearekin jokatzera, baina Urbina Maltzagakoek esan dutenez domekan Iturripen izango dira.

Aitor Lodoso

Teknika grafikoak artearen espresio bide

Elgoibartarra da, 28 urte ditu eta SFX ikastolan artistikako irakaslea da. Arte Ederrak ikasi zituen, baita Ikus-Entzutekoak ere eta egunotan Arrasateko Gure Leku tabernan, bere obra batzuk daude erakusgai, teknika grafikoaz egindako hainbat obra.

— Elgoibartarra izanik, nolatan Arrasaten erakusketan eta gainera taberna batean?


— Gure Leku taberna-koak lagunak dira, eta gainera taberna bera noizean behin erakustoki bihurtzeko gogoaz zeukaten. Hori dela eta, nire lanak tabernan erakusgai jartzea proposatu zidaten. Hasieran ideia ez zitzaidan gehiegi gustatu baina azkenean baietz eman nien. Hau da tabernan jartzen duten lehen erakusketa eta beste batzuk jartzeko asmoa badutela uste dut.

— Arte Ederretako karrera egin zenuen Leioan. Atzera begiratuz gero, nola baloratuko zenuen han ikasitakoa?

— Beno, Arte Ederretakoak golfo batzuk direla esan ohi da. Nik ez dut uste horrela denik. Nik gauza asko ikasi nuen, gertatzen dena teoria baino praktika lantzen ikasten dela gehiago.

— Ze espezialitate egin zenuen?

— Lehenengo teknika grafikoak eta gero, langabezian nengoenez, ikasten jarraitu nuen eta ikus-entzutekoak egin nituen.



— Ze erakusketa mota da Gure Leku tabernakoa?

— Batez ere obra grafikoak dira ikusi daitezkeenak, hau da, grabatuak. Horren barruan, teknika desberdineko grabatuak: xilografia, kalkograbatua eta serigrafia. Ez dira oso obra handiak: handienak 30x70koak eta txikiak 20x10koak.

— Zer isladatzen duzu zure obran?

— Obra figuratiboa da. Gestualitatea lantzen dut, espresibitatea, baita mantxak eta obra beraren trazoak ere. Ez dira oso irudi landuak. Irudizko emakume nahiz gizonak isladatzen ditut.

— Obra zaharrak ala orain gutxi egindakoak dira?

— Niretako zahar samarrak, gutxi gorabehera duela 4 urte egindakoak. Azkenaldian gauza gutxi egiten ari naiz baina badaukat zerbaitetan hasteko gogoaz, batez ere pintatzen hasi nahi dut, hori da nire hutsunea eta.

— Zer dauka pinturak grabatuek ez dutena?

— Grabatueta koloreen erabilpena oso murrizta da, hau da, kolorea lantzeko orduan oso aukera gutxi dago: plantxa bat oinarri bezala hartuz, kolore bakoitza banaka konbinatu beharra dago eta oso lan nekeza eta zaila da. Pintu-

ran berriz, koloreen erabilpena askoz askeagoa da, nahi denean nahastu egin daiteke... lan azkaragoa da eta hori gustatzen zait. Margotu izan dut koadroren bat baina oso zatarrak dira, beraz erronka moduan hartu dut margolaritzarena.

— Orain artistikako irakaslea zara. Zaila da artea irakastea?

— Bai, oso zaila. 11-16 urte bitarteko ikasleei ematen diet klasea eta adin horretan ez dute ikasteko gogorik izaten. Txikiekin errazagoa izaten da arreta gehiago jartzen dutelako baina bestalde ez dute heldutasunik izaten gauzak ondo ulertzeko. Nagusiekin alderantziz gertatzen da, nahi duten guztia ikasi dezakete baina ez dute gogorik izaten. Alde horretatik irakaskuntza bada apur bat frustrantea.

— Jaso duzu erakusketari buruzko iritzirik?

— Bai, lagun batek oso irudi tetrikoak direla esan zidan. Behar bada arrazoia zuen, espresioak oso markatuta daudelako eta beltza asko erabiltzen dudalako.

— Era horretako iritzi bat entzuten duzuenan zure estiloa aldatzen saiatzen zara?

— Jakina ezetz. Ez daukat inolako presiorik, nahi dudana egingo dut beti, gainera, badakit artetik ez dudala sekula bizimodua aterako. Beraz, ez dut nire estiloa sekula salduko.

“Margotu izan dut koadroren bat baina oso zatarrak dira, beraz erronka moduan hartu dut margolaritzarena”

Arsenal rock taldeak zortzi abestiz osatutako maketa grabatu du SHOT!en

Arrasateko musika talde zaharrenetariko batek, "Arsenal"ek, bere lehen maketa grabatu du SHOT! grabaketa estudioan. Mikel Oteiza, Unai Pando, Luis Alonso eta Roberto Iglesias laukoteak osatzen du rock musika talde beterano hau, nahiz eta azkena duela gutxi sartu den taldean. Mikel Oteizak, taldeko bokalistak esaten duenez, "OHO ikasten ari gine-la osatu genuen taldea baina ez genuen ezer serioirik egiten. Duela urte t' erdi berriz, serioago hasi ginen".

Serioski egindako lan hori maketa baten isladatzea nahi izan zuten eta orain gutxi grabatu dute. Zortzi abestiz osatutako maketa da eta Mikelek azaltzen duenez, abestiaren letrak radikalak dira: "Euskal Herriaren egoerari buruz hitzeging eta kritikak egiten ditugu. Dena den, ez gara edonori irain egiten hasten. Gauzak modu onean eta errespetsuz esaten ditugu".

Euren musikaren estiloa rock gogorra ei da, edo



Arsenal laukoteko hiru partaide zuzeneko kontzertu baten.

behintzat, horrela definitzen du Mikelek. Taldeko partaide bakoitzak bere musika gustoak du, eta abestiak sortzeko orduan estilo guztien nahasketa bat ateratzen zaie. Dena den, Roberto Iglesiasen estiloa lasaiena ei da eta taldean sartu zenetik, igerri egiten dela esaten du Mikelek.

Astebete pasatu zuten maketa grabatzen eta emaitzarekin pozik geratu dira.

Gainera, maketa grabatzera baino, ikastera joan zirela aipatzen du taldeko bokalistak: "Maketa grabatzeko Mikel Obregonen, Leize musika taldeko kitarra ohia- ren eta Felix Lekuonaren, "Quemando Ruedas" taldeko bokalistaren laguntza izan dugu. Lehenak kitarraren soinua moldatu zuen eta bigarrenak korauek egin zituen. Askok ikasi genuen grabake-

tan zehar, SHOT!eko lagunak ere ondo portatu ziren eta gustatzen ez zitzaienta esan egiten ziguten guk kontuan izan genezan".

Maketa eta grabazioaren gastua 275.000 ptakoa izan da. Udalak 80.000 pta. eman die eta gainontzekoa euren poltsikotik jarri edo eta irabazi egin behar izan dute, txoznen bidez adibidez.

Maketa tabernetan salgai jarri beharrean, Oihuka, Basati, Matraka eta Esan Ozenki disketxetara bidali nahi dute: "Euren iritzia entzun nahi dugu, benetan egindako kritikak izan daitezkeen nahi dugu. Ondoren, maketa osoa edo abesti batzuk gustatzen bazaizkie, irratietara bidaliko ditugu".

Maketa aurkezteko kontzerturik emango duten galdetean, ez dakitela esaten dute. Arrasaten behintzat, sekula ez dute jo baina horretarako gogoia badutela diote. Aste Santuen ondoren kontzertuak prestatzen hasiko dira.

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorenaren leihuetan


LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

BERTSO AFARIA
Dukiena Jatetxean


ANDONI EGAÑA eta
SEBASTIAN LIZAÑO
Martxoaren 15ean,
gaueko 9etan

Sarrerak
Dukiena Jatetxean
Azkoaga auzoa ARAMAIO
(945) 44 50 86



zken urteotan bezala, omenaldia egingo zaio gaur Txomin Iturberi. Gutxi gorabehera orain 20 urteko argazkia ekarri dugu gaurkoan, ezkerrean **Txomin Iturbe**, erdian **Pedro** aita, eta eskuman **Angel** anaia, orain Santo Domingon dagoena.

Argazkia Baionako kale nagusian aterata dago, Pannencau kalean. Ordurako Txomin eta Angel errefuxiatuta zeuden Iparraldean eta, itxura batean, aita bisita egitera joan zitzairen. Beranduago etorriko ziren bata eta bestearen deportazioak eta ondorengoak.



LAN ESKAINTZA

- Lanpostua:** Igerilekurako Monitore-sokorrista.
Izaera: Aldi baterako kontratu laborala.
Baldintzak: Uretako Sokorrista Agiria.
Igeriketa monitore edo entrenatzaile Agiria.
Oinarriak: Musakolako Kiroldegian jaso daitezke.
Eskabideak: Martxoaren 11a baino lehen aurkeztu behar dira.



ARRASATEKO UDALA

AUKEA ■

LIZARRALDE

KIROLAK



BIZIKLETA MUNDUKO MERKATU ZABALENAI


Bolibar Doktorea, 5
ARRASATE • Tfnoa: 79 91 47

Olakua, 16
OÑATI • Tfnoa: 78 29 86



MARMOLAK HARRIAK GRANITOAK

Bidekurtzeta, 1 - 20.500 ARRASATE - Tfnoa: (943) 77 08 30



Bainuak
Eskailerak
Moldurak

Errotulazioa
Enzimerak
Etxaurreak

Hilariak
Panteoiak
Tximiniak

- MARMOL NAZIONALAK.
- INPORTAZIOKO GRANITTOAK:
Hegoafrika, Finlandia, Brasil, India
etabarrukoak.

Gida 96

Arrasate
Arexabaleta
Eskoriaza
Leintz-Gatzaga

Gida 96rako
GEHIGARRIA

**Gida 96rako zuzenketak,
enpresa berriak eta
autobus ordutegiaren azken aldaketak**

ZUZENKETAK**ARRASATE****◆ BIZIKLETAK**

LIZARRALDE KIROLAK Bolibar Dokorea, 5 79 91 47
TANDEM GCLISMO Zaugalde, 8-behea 79 56 38

◆ JANTZIDENDAK

BENETTON Maialko Errebala, 13 79 50 78
~~79 50 40~~

◆ G-D TRUKE-KLUBAK

CD MANNA Maialko Errebala, 21 79 79 15

◆ MARGOAK

GARBILAN PINTOREAK Santamania, 24-2. lek. . 79 71 33
~~GARBILAN PINTOREAK~~

◆ ITURGINTZAK

EGHA ITURGINTZA Saluente Plaza, 8 behea 79 97 48

◆ OINETAKO KONPONKETAK

LUMA Ferrerías, 42 79 45 03
~~79 43 32~~

AVLA Maialko Errebala, 31 79 90 31

◆ JANTZIDENDAK**◆ JATETXEAK**

BIENIENA Jokin Zategi, 8 79 79 60
HILARION Larrea, 5 77 01 69

BERRIAK**◆ APAREJADOREAK**

OLABE LIZARR, MIGEL Zaugalde, 12 79 13 38

◆ LANTEGIAK

BIURTU, S.A. Zaldipe, 9 79 12 79

◆ BANKETXEAK

LA CAIXA Garbati Etxobidea, 2/g 79 59 00

◆ MARMOLDEGIAK

MARMOLAN Bidekurteza, 1 77 08 30

◆ BAZARRAK

CONEXIO CENTRO CIEN Oiarre, 23 79 78 27

◆ OKINDEGIAK

MENDIZABAL Sebero Alhube, 2 79 89 60

◆ BIDAIAK

BANCELO BIDAIAK Maialko Errebala, 33 79 70 11

◆ TABERNAK

ARRGOI Zaugalde, 28 79 06 40

AUTOBUS ORDUTEGIEN AZKEN ALDAKETAK**BERRIAK**

Gasteiz-Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate-Bergara-Sorluze-Donostia

Astelehenetik ostiralera (lanegunak)			
Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate	
6,20 ⁽¹⁾	6,25	6,30	
8,05	8,10	8,20	
13,05	13,10	13,20	
-	-	14,20 ⁽²⁾	
19,05	19,10	19,20	

Larunbata (lanegunak)

Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate	
8,05	8,10	7,20 ⁽²⁾	8,20
13,05	13,10	13,20	
-	-	14,20 ⁽²⁾	19,20
19,05	19,10	19,20	

Igandea eta Jaiegunetan

Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate	
9,35	9,40	9,50	
19,05	19,10	19,20	

⁽¹⁾ Itzeira Eskoriatzatik ⁽²⁾ Itzeira Arrasateetik

Pesak ordutegien informazio eta bezereen arretarako, telefono berri bat jartzan du zure esku: 902 10 12 10

Donostia-Sorluze-Bergara-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Gasteiz

Astelehenetik ostiralera (lanegunak)			
Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza	
9,30	9,35	9,40	
16,15	16,20	16,25	
19,15	19,20	19,25	

Larunbatak (lanegunak)

Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza	
9,30	9,35	9,40	
19,15	19,20	19,25	

Igande eta Jaiegunetan

Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza	
19,15	19,20	19,25	

Oharra: Ordutegi berri hau martxoaren 4tik aurrera jarriko da martxan.

ZUZENKETAK

Elhar-Bergara-Oñati-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza

Astelehenetik ostiralera-Larunbatak-Igande eta Jaiegunetan			
Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza	
20,50	21,00	21,10	
21,20	21,25	21,30	

Z E R N A H I A G O ?

Jacinta Rodriguez**"Merceria Tita"koa**

- **Erraz gaixotzen zara?** Ez, aspaldi ez dudala gaixotasunik hartzen!
- **Ze krema hidratante erabiltzen duzu?** "Francis" etxekoa.
- **Ze kolorekoa da zure hortzeskubila?** Txuria.
- **Zer egiten duzu asteburuetan?** Domeketan pasiatzera joaten naiz edo bestela mendira. Ez zait kalean ibiltzea gustatzen.
- **Zer falta zaio Arrasateri?** Ezer ere ez. Denetarik daukala uste dut.
- **Jarraitu duzu hauteskunde kanpaina?** Ez, paso egiten dut.
- **Janari bat?** Arroza.
- **Fruta bat?** Laranja.
- **Badakizu makinaz idazten?** Ez.
- **Dutxan abesten duzu?** Bai, leku guztietan abesten dut.
- **Bota dizuten lorarik politena?** 52 urterekin ez didate lora asko botatzen, baina lehengo egunean 18 urteko neskatxak baino gehiago balio dudala esan zidan senarrak!
- **Lotsatia zara?** Bai.
- **Janzteko kolore bat?** Urdin argia.
- **Infusio bat?** Kamamila, ia egunero hartzen dut.
- **Aktore bat?** Richard Gere.
- **Menta ala fresazko txikleak?** Mentazkoak.
- **Liburu bat?** "No sin mi hija".
- **Barruko arropa txuria ala beltza?** Txuria.
- **Musika talde bat?** Mucedades.
- **Abesti bat?** "Maite".
- **Erosi duzu inoiz argaltzeko pilularik?** Ez, ez dut beharrik izan.
- **Igandean bozkatuko duzu?** Bai.

**LABURRAK****Kultur eta gazte taldeendako dirulaguntzak**

Aurten dirulaguntza jaso nahi duten kultur eta gazte taldeek Gazte Bulegoan edo Udaletxean jaso ahal izango dute eskaria egiteko bete behar den inprimakia. Laguntza jasotzeko eskaria martxoaren 29a baino lehen egin beharko dute.

Inprimakian eskatzailearen datuak bete beharko dira eta horrez gain taldeak urtearen memoria aurkeztu beharko du. Aurtengo asmoen berri ere eman beharko da besteak beste.

Iaz gazte taldeen artean bi milioi pezeta baino gehiago banatu ziren eta kultur taldeen artean ia hamar milioi. Aurtengo aurrekontuak Udalak onartu barik dituzenez, oraindik ez da ziur zenbateko dirutza zuzenduko den horretarako. Seguruenik ez da igoerarik izango.

Iaz 12 gazte taldek eta 30 kultur taldek jaso zuten dirulaguntzaren bat.

ARKOK KOMERTZIAL SAILERA KO LANPOSTU BAT BETE BEHAR DU

BALDINTZAK:

Euskara ondo menperatzea.
Harremanetarako erraztasuna izatea.
Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

BALORATUKO DA:

Publizitate, marketing edo enpresa mailan ikasketak izatea.
Herri komunikabideen ezagupena.
Komertzial bezala esperientzia izatea.
Arrasate ezagutzea.
Testu prozesatzaileak eta datu baseak menperatzea erabiltzaile moduan.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Kurrikulumak martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira ARKOko egoitzan.

Azoka kalea, 1 - 20.500 ARRASATE - Tfnoa: 77 08 15 - Faxa: 77 09 40

• ESAERA •

“Naturak ez digu sekula
gezurrik esaten. Geu gara
geure burua engainatzen
dugunok”

ROUSSEAU

• JEROGLIFIKOA •

BASO


A A A A

A A A

A A A A

Nork ekarri dizu oparia?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ustekabeko. 8. Agirre, Astebete saioko aurkezlea. 9. Kanpo. 10. Zuhaitz-adarra mehea denean. 11. (Ald.) Euzko Nekazarien Bazkuna. 12. Alfabetoko 11. letraren izena. 13. (Ald.) Langile espezializatu gabea. 15. (Ald.) Gauzak gordetzeko lekua. 18. Atsekabe handia. 19. Edozer edukitzeko den kutxa handia. 20. (Ald.) Unadura. 21. Elektrikoki kargaturiko atomoa.

Bertikalak 1. Sexu emeko pertsona. 2. Irekirik. 3. Oinarrizko edaria. 4. Damasko hiriburu duen estatua. 5. Tantaloa. 6. Beste herri batekoa dena. 7. Zalantza adierazteko partikula. 11. Albiste. 14. Olerki mota. 16. (Ald.) Niri. 17. Substantzia, materia.

• HOROSKOPOA •

Aries Urrundu zaitez inguruan dituzun Aries guztiengandik, arrisksutsuak dira.

Taurus Adar zorrotzak dituzu baina pazientzia benetan motza.

Gemini Zoaz parranda egitera eta egun batez ahaztu arazoak.

Cancer Oso sentibera zaude azkenaldian baina nahikoa da!

Leo Garai zailak datoz baina izango duzu aurrera egiteko kemenik.

Virgo Ez dakizu lagunak eta etsaiak bereizten, kontuz.

Libra Telepatiarako gaitasun galanta duzu. Nork irakatsi dizu?

Scorpio Maitasuna zoragarria da, baina zuk jarrai zeure bideari.

Sagitarious Deitu lehengusuei, albiste onak dituzte eta.


Capricorn Odol beroa duzu baina ahoa ere beroegia.

Aquarius Aukera bakarra duzu: gutxia utzi eta ezkondu.

Piscis Lehen ez bezala, lagunenez zirik min egiten dizute. Zergatik?

Etxe-Aundi

Torrauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorniu

TELEBISTAREN TXOKOA

Hauteskunde programa igandean ATBn

Domekan hauteskunde orokorrak burutuko direnez, programa berezia egingo da Arrasate Telebistan gaueko 10etan. Hauteskunde programa Mikel Irizarrek aurkeztuko du. Arrasateko emaitzak emango dira ezagutzera eta horretaz gain alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bana etorriko da ATBra bere taldearen emaitzei buruzko iritziak azaltzera.



PROGRAMAZIOA



1 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

9.30etan
Astebete
Damaso Zuazua apaiz atxabaltarrak Zairen burutzen ari den "Bukavu" proiektuaren berri emango du. Bestalde, ostiraleko plenoan erabakitakoak aztertuko ditu ere Maria Agirrek.

3 Igandea

22.00etan
"Hauteskundeak 1996" programa berezia Mikel Irizarrek aurkeztuta.

4 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

5 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

6 Asteazkena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Zinea

7 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Elkartean" saioa, Tomas Axpek eta Karmele Zuazubiskarrek aurkeztuta.
Elkartea: Iturripe

8 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

KOMIKIA



Zagazar.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza

Hafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Jeroglifikoak: Osabak.

Ine. 17. Gal

ko. 7. Oie. 11. Berri. 14. Oda. 16. (Ald.)
Ik. 3. Ura. 4. Sirta. 5. Ta. 6. Kampo-

Bertikalak: 1. Emakume. 2. Zaba-

Eken. 21. Ioi.

drog. 18. Min. 19. Arka. 20. (Ald.)
Ka. 13. (Ald.) Ioe. 15. (Ald.) Uia-
9. Ar. 10. Abar. 11. (Ald.) BNE. 12.

Horizontalak: 1. Ezusteko. 8. Maria.

Etxebizitzak

- **Pisua salgai San Andresen.** Tfnoa: 79 77 17.
- **70m²ko lonja alokatzen da.** Ur eta indarraz. Tfnoa: 79 76 95.
- **Makatzenan etxebizitza salgai.** Tfnoa: 76 02 63.
- **Garaje plaza salgai Aldaigainen.** Tfnoa: 79 77 81.
- **Lokala alokatu nahi dugu** prezio merkean. Tfnoa: 77 14 18 edo 79 15 34. Igor.
- **Garajea alokatzen da** Jose Luis Iñarra kalean. Tfnoa: 79 36 79.
- **Lizarran 98 m²ko pisua salgai.** Gasturik gabekoa. Tfnoa: 79 11 02.
- **Jose Luis Iñarra kalean garaje plaza** alokatzen dugu. Tfnoa: 79 36 79.
- **Etxea erosiko nuke.** Tfnoa: 77 00 77. Antonio.
- **Gela bat alokatzen da bi ohekin.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua alokagai** ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Gauko 9etatik aurrera.

Lana

- **Neska gertu arratsaldean umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Irlandatik etorri berria** ingelesezko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 21 56.
- **Neska prest umeak zaindu** edo etxeko lanak egin eta bulegoak garbitzeko. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Bi neska gertu larunbatetan** etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 38 48 edo 77 01 39.

• **24 urteko neska euskalduna** etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Esperientziaduna eta informeeekin. Tfnoa: 79 37 82. Pili.

• **Esperientziadun neska** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 71 44 27. Rakel.

• **Umeak zaindu edo** etxeko lanak egiteko neska gertu. Tfnoa: 79 74 92.

• **Neska gaztea gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 63 18.

• **Ileapaindegian** diplomatua lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 63 18.

• **Neska bat garbiketak** (etxeak, bulegoak, lokal komertzialak, tabernak...) edo umeak zaintzeko prest Tfnoa: 79 85 40.

• **Neska prest pertsona nagusiak** zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 87 47.

• **Etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 77 07 97.

• **Emakume euskaldunak** eta esperientziadunak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 56 81.

• **Emakumea prest** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 73 83.

• **Pertsona euskalduna** behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin gaueko 8etatik aurrera. Tfnoa: 77 13 30.

• **Emakumea prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 07 73.

• **Neska gaztea mekanografian** titulatu eta informatikako ezagupenekin (Datu basea, Word-Perfect, MS-Word, Lotus). Tfnoa: 79 84 31.

• **Emakumea gertu umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 76 45.

• **Andra gereontologian** diplomatua eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.

Salerosketak

• **Motorrean ibiltzeko** larruzko trajea salgai. Oso rik edo bi zatitan saltzen dira. Prarak 32 tailakoa eta kazadora 40koa. Gaez. Tfnoa: 78 87 47.

• **Casio CT-700** teklatura salgai. Tfnoa: 79 05 75.

• **Eskritorioko aulkia salgai.** Tfnoa: 79 05 75.

• **Español arrazako zaldi** sementala daukagu. Interesatuek dei egin 79 23 36 edo 79 46 75 tfnora.

• **Fagor markako ontzigarbigailua salgai.** Berri berria dago. Tfnoa: 79 82 73.

• **90 eta 80 oheak salgai.** Laminazko egurrekin, eta logelarako armairua. Tfnoa: 79 24 51.

• **Josteko makina salgai.** Altzaria oparitzen da. 15.000 pta. Egoera onean. Tfnoa: 79 67 65.

• **Lapurren aurkako alarma salgai.** Denda edo tabernarako egokia. Tfnoa: 79 65 31.

• **la berria dagoen 50 litroko berogailu** elektrikoa salgai oso prezio onean. Tfnoa: 79 66 24. Egurdietan edo gauetan.

• **Derby Copa motorra salgai.** (50 cc, 4 martxa). Gorria. Prezio ona. Tfnoa: 79 66 24. Egurdietan edo gauetan.

• **Liberty ziklotorea salgai.** la berria eta prezio onean. Tfnoa: 79 66 24. Egurdietan edo gauetan.

• **Lur zati bat erosiko nuke** inguru honetan. Tfnoa: 79 78 74. Pedro Etxeandia.

Denetarik

• **Play-Back jaialdien gaueko saioa** grabatuta badaukazu, dei egidazu mesedez. Tfnoa: 79 79 28. Placi.

Aste Gazte

Lana

- Berriozarreko Udalak, udaltzain lanpostu baten deialdia egin du. Epea: martxoak 14.
- Mendabiako Udalak, udal alguazil lanpostu bat kaleratu du. Epea: martxoak 14.
- Imotzeko Udalak, administrari laguntzaile bat behar du. Epea: martxoak 14.
- Izagako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak, lanpostu hauek kaleratu ditu. a) Administrari laguntzaile bat. b) Familia langile bat. Bien epea: martxoak 18.

- Nafarroako Foru Elkarteak, 29 administrari laguntzaile lanpostu deitu ditu. Epea: martxoak 8.
- Atarrabiko Udalak, zerbitzu anitzeko langilea behar du. Epea: martxoak 15.

Udaberriko auzolandegiak

- 1) Urte osoko gizarte-lana Alemanian. 2) Nazioarteko Borondatezko Zerbitzuak: Alemanian eta Dinamarkan. 3) Rempart-en (Union d'associations de sauvegarde du patrimoine) Frantzian. 4) Ingalaterran, zenbait auzolandegi.

Ikastaroak


• "Euskal Dantzak" ikastaroak ("Lore Gazteak" taldearen eskutik). 15 urtetik gorakoei zuzenduta, martxoaren 15etik ekainaren 14ra. Ostiraletan, 7etatik 8.30etara. Bikote mixtoek lehentasuna izango dute. Plaza mugatuak. Matrikula 1.000 pta.

Lehiaketak

• "Bilboko Udalaren II. Komiki" lehiaketa. Gaia librea. Nahi duten guztiek parte har dezakete, bakarka zein taldeka. Modalitatea: bata zuri-beltzean, bestea koloreetan. Lanak euskaraz zein gaztelerez aurkeztu daitezke. Epea: martxoak 20.

"Nora joan ote dira hegan gaztaroko ordu haiek, maitasuneko eta zoriontasuneko ordu haiek...?"


JOSE DE ESPRONCEDA



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

TXOMIN ITURBE

borrokalari independentistaren omenez



*Independentziaren
aldeko borrokan
diharduten
suztien ahotsa
entzungo da.*

**MARTXOAREN 1ean
OSTIRALA**

**AMAIA
ANTZOKIAN**

Gaueko 10.30etan

JAIALDIA

Txalapartariak • Arrasateko Trikitilariak

IÑAKI LABAKA

Bertsolariak:

Haritz Lopategi

Ion Maia

Iratxe Ibarra

Unai Iturriaga

Jesus M^a Irazu

EKITALDI POLITIKOA

Aurkezlea:

Xabier Zubizarreta

Hizlariak:

**FLOREN AOIZ,
eta BIDEOA PEIXOTOekin**

Borzkatu

HERRI BATASUNA





**Eta orain toki aldaketarik
%50erainoko beherapena.**



a. m. sukaldeak

Zerkaosteta, 3 • ARRASATE • Tfnoa: 79 15 03